

Iñaki Mendiguren

IDAZLEA ETA ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Etxeko lanak udarako

HEMEZORTZI URTE eman ditut aldizkari honetan tarte zertxobait idazten. Honezkero batzuk ohartuko zineten irakurtzea dudala obsesioetako bat, sarri gomendatu izan baitut libururen bat artikulu hauetan. Izan ere, jakintzak, kulturak egiten gaitu gizaki, eta egin beharko gintuzke pertsona hobeak. Badakit jakintza ez dela liburuetara mugatzen, baina gaur egun eta hemen libururik gabe ez dago kulturarik, eta duela gutxi Atxagak gogorarazi zuen bezala, gure gizartean irakurketarik gabe ez dago elkarriketa aberatsik eta ez dago adiskidantzarik.

Irakurtzea tresna edo baliabide bat besterik ez da. Niri biziki interesatzen zaidana gizabanakoaren eta giza taldeen funtzionamendua ezagutzea da, alderdi askotatik. Helburu nagusia neure burua ezagutzea da, eta inguratzeko nauen jendartea ezagutzea. Zertarako? Pertsona osoagoak eta kontzientzia-maila handiagokoak izateko, eta horrela gure elkar bizitza harmoniatsuagoa eta emankorragoa izateko.

Horregatik, azken agurreko artikulu honetan, emakume bat eta bere liburuak gomendatu nahi dizkizuet udarako. Alice Miller, 1923-2010 (*El drama del niño dotado y la búsqueda del verdadero yo. El cuerpo nunca miente. La llave perdida. Por tu propio bien; raíces de la violencia en la educación del niño...* Frantsesez ere erraz aurkituko

dituzte Iparraldekoek. Eta noiz euskaraz honelako liburuak?). Psikoterapeuta honek bizitza gehiena eman zuen hurrek guraso edo helduengandik jasotako tratu txarrek —eta tratu txarrek ez dira bakarrik zaplatekoak eta gorputzeko zauriak!— gerora dituzten ondorio larriak aztertzen: ondorioak norberarentzat helduaroan eta, beraz, ondorioak gizarte osoarentzat (horren haritik Hitler, Stalin eta beste hainbat pertsona publikoren biografiak aztertu zituen).

Gupidarik gabe eta ezin gordina-go astintzen ditu familia, moralak, erlijioa (“Ohoratu aita-amak...” dioten Hamar Aginduetako hori); kritikatzeko du hezkuntza-sistema eta “pedagogia beltza”; larrutzen du gizartean dugun zigor eta espetxe sistema... Gure ohiko iritzi asko hantzez gora jartzen ditu ausardia handiz, besteak beste, genero-indarkeriaren sustraia aztertzen dituenen.

Berarekin ados egon edo ez, zer pentsa handia ematen duenik ezin uka. Baina ez da dena suntsitzera mugatzen, baizik eta eraikuntza osasuntsuak nondik nora joan behar duen ere garbi iradokitzen du. Beraz, animo, eta ea zuei ere niri bezain interesgarria gertatzen zaizuen emakume hau ezagutzea. Bizi pozik... eta ez adiorik! ■



Psikoterapeuta honek bizitza gehiena eman zuen hurrek guraso edo helduengandik jasotako tratu txarrek gerora dituzten ondorio larriak aztertzen

DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

Giza katea

EZ DAKIT Katalunian mugaz gaindikotasuna nola lantzen duten, lotura hautsi horiek osatzeko balioko ote duen prozesu politiko berriak, perpyniatarren eskurik ba ote zen giza kate izugarri hartan. Ez dakit hangorik, hemengoak dakidana da herritarren kemena bereziki mugaz alde batean kontzentratu dela, eta aski berant ohartu garelako gu ekimen horren dimentsioak eta erabakitze eskubideak Iparraldean ere izan zezakeen garrantziaz.

Agian, erritmo politikoak ezberdinak direla oso barneratua dugulako, edo alde bateko dinamikak beste aldera pasatzera-

koan halako aduana mental batek gelditze-ko agintzen digulako; akats historikoak errepikatzeko ikara. Izango da tartean ez-ezagutze puntu bat ere. Eta baita Iparraldea hauteskunde giro etengabe batean murgildua ibili dela, hasi herriko bozetatik eta Europakoetaraino. Hori dena egia da, baina, hala izanik ere, uste dut bazuela garrantzia erabakitze eskubidearen mugaz gaindikotasuna lantzeak, eta baduela oraindik ere. Segur aski Iparraldekoogoi dagokigu kate horri begi bat eranstea, hark ere gu ikus gaitzan. ■

